

QUINE- ENPIRISMOAREN BI DOGMA

0. Sarrera

Enpirismo modernoa baldintzatua izan da bi dogmengatik:

- **Analitiko:** egiak vs. egia sintetikoen arteko bereizketa funtsezkoa da.
- **Erredukzionismo:** esanahia duen baiezen bakoitza bitartegabeko esperientzia denotatzen duten terminoen gaineko eraiketa logiko baten baliokidea da. Alegia, logikara erreduzi daiteke esanahiduna den baiezena.

→ **Funggabeak** dira, ez daude justifikaturik. Hauek aztertu eta kritikatu.

Dogmak baztertearen bi ondorio/efektu:

- 1) Metafisika espekulatibo vs. zientzia naturalen muga lausotzea
- 2) Pragmatismoranzko desplazamendua.

1. ANALITIKOTASUNAREN SUSTRAIA: zer da baiezen analitiko bat?

Perpau bat analitikoa da egiazkoa bada bere esanahiaren harira, egitaterik kontuan hartu gabe, apriori hain zuzen ere. Esanahia ordea zalantzarria da, analitikoa-esanahia-sinonimia bat azaltzeko beste azaldu behar delako. Auzia kontzeptu horietako bat bera ez dela argia da, horregatik, dogma dela defendatuko du. Ezin baita azalpen argirik eman, eta ondorioz, metafisikatzen kalifikatuko ditu. Horretarako, analitikoasunaren gerturaketa bat egingen du.

Kant: egia analitiko vs egia sintetiko

Arrazoizko egiak: mundu posible guztietan egiazkoak direnak.....

Baiezen analitikoen ukazioa autokontraesankorra diren baiezenak dira. Adb: baiezen analitikoa: $2+2=4 \rightarrow \neg \alpha$: anbigua da, zer da ukatzen dena? *Fe ez da burusoila*

Kanten formulazioaren bi akats:

- 1) Subjektu-predikatu formako baiezenetara mugatzen da.
- 2) Maila metaforikoan uzten den esanhiaren nozioa aintzat hartu.

→ Kanten analitikoasunaren definizioa erabilpenarengatik litzateke:

*Baiezen bat esanhiarengatik, eta gertakarietako independentziaz egiazko denean **analitikoa** da.*

- *Zer da esanahia?*

Esanahia≠izendatzea: gauza bera denota¹ dezake esanahi ezberdina edukiz. Adb: goizeko izarra/ arratseko izarra (bi esanahi "zentzu") Marte (izendapena/denotatzea).

Bereziketa hura maila abstraktuan ez du garrantzirik.

→ **Termino singularra ≠ Termino orokorra**

¹ Denotatu deskripzio definituak, izendatu aldiz, izenek egiten dute.

- Termino singularra: zehatzak zein abstraktuak/hutsak izan daitezke eta entitate hura designatu nahi du. Hau da, designatzekotan, objektu partikular bat designatzen duten sintagma edo adierazpenak dira: izen propioak, DD eta indexikoak. “9”/ “planeten kopurua” esanahi ezberdina baina izendapen/designazio bera.
- Termino orokorrak: ez du entitate abstraktu/konkretua designatu nahi. Egiazkoa da entitate bati buruz, edo ez da egiazkoa ezeini buruz, edo askoren artean bati buruz. Zentzua (esanahi/konnotazio/egoera psikologiko gisa ulertuta) eta hedadura?/extentsioa bereizi behar dira. Adb: “bihotza duen kreatura”/ “giltzurrunak dituen kreatura” DD-k designa dezakete demagun txakur bera (erreferentzia bera) baina, esanahi ezberdina izan. Intentsio/extentsio bereizketa ez da hain nahasia.
 - Terminoaren hedadura/extentsioa: egiazkoa den entitate guztien klasea da.

INTENTSIOA (ESANAHIA)	ESTENTSIOA
KONNOTAZIOA	DENOTAZIOA (ERREFERENTZIA)

Aristoteles: esentzia nozio landu, intentsio nozioaren aintzindaria. Esentzia eta esanahia lotuta.

- Gauzek esentzia dute.
- Esanahia: esentzia + hitza + elkartu eta erreferentziaren objektutik banantzean bihurtu. Baina hizkuntz formek soilik dute esanahia (ez esentziek).

→Zein motatako gauzak dira esanahiak?

Honen argipen eza esanahiaren teoria eta erreferentziaren teoriaren arteko bereizketa egitearen ondorioz solbenta daiteke, baina ez da argitzen.

Baiezpen analitikoak. Bi klase:

- 1) **Egia logikoak.** *Ez dago ezkondua den gizonezko ez-ezkondurik.*
- 2) **Sinonimiaren nozioarekin lotuta.** *Ez dago ezkondua den mutilzaharrik.* Carnap: egoera-deskribapena² terminoarekin ez du analitikotasunaren auzia konpontzen. Analitikoak beraz, egoera deskripzio guztientzarako egiazkoa denean izanen da. Horrela, analitiko nozioa soilik argituko litzateke hizkuntzaren baiezpen atomikoak elkarrekiko independentak diren horietan. Haatik, bere helburua probabilitatea eta indukzioa nozioak argitzea da.

*Egoera deskribapenak: hizkuntzaren baiezpen atomiko zein ez-konposatuei egokitutako egia-balioen edozein esleipen osoa da.

2. DEFINIZIOA

Bigarren klaseko baiezpen analitikoak aztertuko ditu (sinonimia alegia). Konponbidea definizioaren nozioaren bidez ematen saiatuko da. Hau da, sinonimia definizioen bidez argitzen saiatuko da, horrela, egia logikoak bilakatuko liratezkeelako. Haatik, definizioaren irizpidea hiztegian, definizioetan aurkitzen da, lan enpirikoa dena.

² Leibnizen mundu posible nozioaren berrinterpretazioa litzateke.

Definizioaren auzia definizioak zehazten d(it)uen subjektuan eta denboran dago. Lexikografo batzuetara mugatzen da. Aitzitik, sinonimiaren nozioa hizkuntz jokabidearekin lotuta egonen da eta filosofoei ere dagokien auzia da.

Sinonimia: bi hizkuntz forma sinonimoak bailiran modu egokian deskribagarriak izateko beharrezko eta nahikoak diren elkarrekiko loturak zer izan daitezkeen zehazten ditu, eta erabilpenean oinarrituta dago.

Definizioa zehaztapenetik haratagokoa Carnapen **esplikazioa nozioa legoke**. Helburua sinonimobaten *definiendum*-a hobetzea beraren esanahia birfinduz eta osatuz.

- Definiendum: definituko den terminoa.
- Definiens: definitzen duen hitz talde/multzoa.
- Definiencia: definiendum-en plurala.

Beraz, definizioa ez da irtenbidea, sinonimia azaldu edo argitzeko sinonimian oinarritzen delako. Izan ere, hiztegietako definizioak sinonimia erlazioetan oinarritzen dira eta ez alderantziz. Beraz, azalpen zirkularra litzateke, jada existitzen diren sinonimia erlazioak jasotzen baitituzte definizioek. Sinonimiari helduko dio.

3. TRUKAGARRITASUNA

- Sinonimia trukagarritasunean oinarritzen da. Trukagarritasuna ez da testuinguru guztietan ematen.
- Sinonimia= '*salva veritate*'-ra erreduzitu.
- Sinonimia kognitiboa \neq sinonimia. Sinonimian soilik zentratuko da.
 - Sinonimia kognitiboarentzat trukagarritasuna beharrezko baldintza nahikoa da, baina baiezpen analitiko da, eta beraz, analitikotasuna auresuposatzen du. Hau da, argi ez dagoen nozioa.
 - Beraz, a
- Trukagarritasuna hitz komatxodunekin ("x") azal daitezkeen galdera planteatuko du.
- Hitz nozioa aztertuko du horretarako.
- Tranpa da, *salva veritate* trukagarria **hizkuntzaren araberakoa da, bere aberastausnaren araberakoa alegia**. S.V. trukagarritasuna esanahigabea da, hizkuntza batetik eraltibizatu arte.
 - Hizkuntza estentsionaletan (aberastasuna ez dutenak) bi ordezkapen linguistiko S.V ordezkariak dira. →Logika klasikoa
 - Hizkuntza intentsionaletan (aberastasuna dutenak) ez dute S.V ordezkagarria izanen, **egia balio aldatzen** dute nahiz eta sinonimoak izan daitezkeen dirudien.
 - Operatzaile intentsionalak dituzten hizkuntzak: modalak (derrigorrez, ezinbestean...) zein epistemikoak (badaki..., uste du...)
 - Operatzaile intentsionalak ilunak dira. Beharrezkotasuna analitikoak izatea esan nahi du, beraz, analitikotasuna ezin da S.V. ordezkaritza bidez definitu.

Adb:

- (1) Ezinbestean gizonezko ezkongabe guztiak (eta horiek bakarrik) ezkongabeak dira. →Egiazkoa: intuitiboki eta logikoki →Analitikoak: egia logikoa.
- (2) "Mutlizar" ↔ "Gizonezko ezkongabea" S.V. ordezkariak gure hizkuntzan.

(a) Ezinbestean, mutilzahar guztiak, eta bakarrik mutilzaharrak, gizonezko ez-ekzkonduak dira. →Egiazkoa. →Analitiko delako esan nahi du, ez due gila balioan eragiten. **Beharrezkotasunaren** oinarrian analitikotasuna dago. Hau litzateke 2. motako analitikoak.

- Auzia: analitikoasuna definitzen saiatzen garen bakoitzean kontzeptu ilun batekin topatzen gara. Analitikotasunaren nozio berrartu argitzen saiatzeko.

4. ERREGELA SEMANTIKOAK

Baiezpen analitiko/sintetiko bereizketa iluna da.

- Bereizketaren anbiguitasuna hizkuntza naturala delako eta.
- Bereizketa argitu erregela semantikoekin (geroago ikusi ez delako zuzena).

Hizkuntza natural vs. hizkuntza artifizial

- Hizkuntza artifizialean erregela semantikoak aztertzen dira.
- Ez dugu ulertzen “-rako analitiko” zer den. Hau da, ez dugu ulertzen analitiko erlazioan, zerbaitetiko analitiko zer den.
- Erregela semantikoak 2 formatan aztertu:
 - 1. forma: honako-ta-halako baiezpenak ez dira analitikoak
 - 2. forma: honelako-ta-halako baiezpenak egiazkoen artean daude. →Egiaren erregelak egiak estipulatu. Baiezpena analitiko da erregela semantikoaren arabera egiatzeko baldin bada.

‘Postulatu’ eta ‘erregela semantiko’ nozioak modu erlatiboan (zerbaitekiko erlazioan) esanahidunak eta zentzudunak dira bakarrik.

- Hizkuntza artifizialek ez dute ‘analitiko’-tasuna argitzen, erregela semantikoak lagungarriak/interesgarriak izan daitezke analitikotasuna zertan datza argitu ondoren.
- Erregela semantikoaren bidez analitikotasuna zer den argitzea ezinezkoa da, erlazioan soilik esanahidunak baitira.

Ez dago baiezpen analitiko/sintetiko bereizketa argirik, honen gaineko justifikazioak ez dira nahikoak, zirkularrak baitira eta ondorioz, funtsgabeak. Bereizketa ezarri da enpirismo ez-enpirikoa (alegia, dogmatikoa) egiteko, metafisika hain zuzen ere.

5. Egiaztapen teoria eta Erreduktionismoa

Esanahiaren egiaztapenaren teoriari heldu honen bidez, analitikotasunaren nozioari eutsi ahal diogulako jorratuko du.

Baiezpen baten esanahia baiezpen bera enpirikoki onesteko edo ezezteko metodoan datza. Baina, *Zein da baiezpenaren eta esperientzien (zeinek baiezpenaren onespina laguntzen edo eragozten baitute) arteko erlazioaren izaera?*

Baiezpen bat egiaztatzerako orduan, baiezpena eta baiezpen hura egiaztatu dezaketen edo ez esperientziaren arteko erlazioa **zehaztapen zuzenean** datza (bitartekorik gabekoa) **erreduktionismo erradikala** litzatekeena. Esanahiaren egiaztapenaren teoriaren objektua beraz, **baiezpenak** dira.

Egiaztapenaren teoriak oinarrian erredukzionismoaren dogma dauka, gero frogatuko abitu ez dagoela justifikatuta.

Baiezpen eta esperientziaren arteko erlazioaren gaineko bi ikuspegi daude:³

- a) Esanguraduna, bere zatiek esanguradunak badira
- b) Esanguraduna osotasunean esanguraduna bada.

Carnapen figura erabiliko du erredukzionismo erradikala azaldu eta hau kritikatzeko. Egiaztapenaren teoriak emantzat jotzen du erredukzionismoaren dogma. Esperientzia posible batek baiezpenak onetsi/ezeztatu ditzakeela, hain zuzen ere. Erredukzionismoak beraz, baiezpen bakoitzak modu isolatuan egiazta daitezkeela defendatuko du.

Quinek aldiz, baiezpenak erlazioan aztertu behar direla dio, ez isolaturik, hizkuntzaren osotasunean baizik. Zentzugabea baita uste izatea zerbait baiezteko esperientzia posible den heinean egiaztatze metodo bat finkatzea.

Bi dogmak analitikotasuna eta erredukzionismoa berdinak dira, bata bestea sostengatzen du. Izan ere, erredukzionismoa, analitiko-sintetiko bereizketan oinarrituta dago ere. Alegia, baiezpen analitikoak daudelaren ideian.

6. Dogmarik gabeko enpirismoa

Bi dogmak ukatuko ditu. Erredukzionismo erradikala ukatzean ez du enpirismoa bera ukatzen, hau ulertzeko modu konkretu bat baizik.

Positibisten ezagutzaren metafora, eraikuntza bat bezala irudikatzen dena ukatuko du. Quinentzat ez baitago oinarririk, ez dago eraikuntza piramidalik. Metafora berria proposatuko du **sarearen metafora**, alegia. Ezagutza beraz, erlazonaturik dagoen sare korapilatsua litzateke, oinarririk ez duena, ezta deribazioen ondorioz sortzen den zerbait. Unitate esanahidun minimoa beraz, ez da baiezpena hizkuntza bera baizik. Hizkuntzaren ikuskera holistikoa proposatzen du. Sarean bi baiezpen mota bereziten dira sentipen-datuekin (esperientziarekin) dute harreman-mailaren arabera. Batetik, **ertzetako baiezpenak** daude, esperientziarekin dependentzia altua dutenak dira. Bestetik, **barneko baiezpenak** zeintzuek sarean zentralagoak liratezke. Izan ere, esperientziarekin duten dependentzia gutxiago izanen litzateke eta beraz, hauek ukatzea zailagoa da. Bi baiezpenek esperientziarekin bat egin behar dute, nahiz eta barnekoak esperientziarekiko duten dependentzia gutxi dela eta, helburutzat legeen sinpletasuna izan.

ERTZETAKO BAIIEZPENAK	BARNEKO BAIIEZPENAK
“Kontingenteagoak”	Zentralagoak, pisu handiagokoak
Hauek aldatzea erraza	Hauek ukatzea zailagoa

³ Kontua ordea, baiezpenak modu isolatuan hartzen dituela, hizkuntza sarea hartu gabe.

Adb: “*Euria ari du*” baiezipena frogatzeko bi modu:

- Egiaztapen metodoa erabili, eta lehiotik begiratu hau nire esperientziarekin onetsi/ezeztatzeko
- Sarea: sareko eremu zabal batekin kontrastatu esperientziaren bidez. Beraz, ez da soilik leihotik begiratzea, leihoa persiana jeitsi ez egotea, garbia egotea... Hau da, ez da baiezipena modu isolatuan egiaztatzen dela, baiezipen multzo bat, sareko eremu bat baizik.

Quinentzat zientzia esperientzia azaltzeko sortzen dugun zerbait litzateke, ezagutza osatu, predikzioak egiteko. Egitasmoa erdiesteko eremu zabalak behar ditugu (sarea). Beraz, ez dago egia analitikotik

Esperientziak teoria infradeterminatzen du. Izan ere, sperientziak esan diezaguke teoria bat gaizki dagoela, baina ez digu esanen zergatik dagoen gaizki, edo zertan dagoen oker Teoria osoa esperientziarekin erkatzean tentsioak sortzen dira, inkoherentziak alegia. Gauza asko aldatzeke leudeke, askotan aldatzeko sinpleena denera jotzen dugu. Teoria aldiz, gure esperientzia azaltzeko egokia izan behar da, koherentea.

Teorien artean aukeratzeko irizpide pragmatikoa:

- 1) Sinpletasuna: gehienetan honetara jotzen dugu.
- 2) Kontserbadurismoa.
- 3) Ekonomia: ahalik eta termino edo aldaketa gutxien sartzea teorian.

Bi ikuskera leudeke:

- Analitikotasuna defendtzen dutenek: analitiko/sintetiko bereizketa defendatzen dute. Ezagutza edo zientzia baiezipen analitikoaren hizkuntz osagaiatik hartuko luke.
- Erredukzionismoa. Enpiristak liratzeko. Ezagutza/zientzia esperientzia onesleen multzo batera mugatuko luketeen gertakarizko osagaiean oinarrituko litzateke.

Finean, bi ikuskerek analitiko-sintetiko bereizketan oinarritzen dira. Ezagutza-munduare-hizkuntzaren hierarkia bat planteatzen dute. Quinek aldiz, modu holsitikoan aztertzen, sarearen emtafora erabili, hierarkia ororekin amaitzeko.